

# Zerbitzu askotarako txartela probatuko dute Basaurin

ASIER ALKORTA

Basauri

Basauriko (Bizkaia) bizilagunek Osakidetza osasun txartel elektronikoa eskuragarri dute dagoeneko. Orain arteko txartelari txip bat gehitu diote, eta horrek osasun zerbitzua eta bestelako udal zerbitzuak Internet bidez erabiltzeko aukera ematen du. Sistema berri hori Basaurin probatuko dute, eta, gero, emaitza onak lortuz gero, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste udalerrietara hedatuko dutela adierazi du Eusko Jaurlaritzak.

Egitasmoan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Lehendakariordetzak eta Basauriko Udalak parte hartu dute. Txartel berriaren bidez, herritarrek euskarri bakar baten bitartez administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuetara jozteko Internet bidez egiteko aukera izango dute. Horiek hala, txartelaren bitartez etxetik hartu ahal izango da medikurako kontsulta, medikua aldatu, udal liburutegian liburuak maileguan hartu eta errenta aitortpena edo gidabaime-naren puntuak kontsultatu.

Atzotik abian dago txartel berriaren aldeko kanpaina, *Basaurik txip aldatu du* lelopean. Txartela eskuratzeko harrera bulegoak jarri dituzte herriko osasun zentroetan, Artunduaga kiroldegian eta bestelako kultur aretoetan. Leku horietan guztira 14 langile arituko dira erabiltzaileei txartela nola erabiltzen den azaltzen. Txartel berria eskuratu nahi duenak orain arteko osasun txartela eta nortasun agiria aurkeztu beharko ditu.

Erabiltzerakoan, txartelak «segurtasun handia» duela esan zuen Gabriel Inclan Eusko Jaurlaritzako Osasun aailburuak. «Orain arte izandako txartelak baino segurua goa da». Inclanen esanetan, Osakidetza txartela erabili dute euskarri moduan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar gehienek zerbitzu publikoetara Internet bidez sarrera izateko. «Herritar gehienek daukate txartela, eta bide egokia da herritar gehienengana iristeko».

**AURRERAPENA ETA HEDAPENA.** Idoia Zenarrutzabeitia EAEko lehendakariordearen esanetan, egitasmoa, «urrats handia» da teknologiaren alorrean eta «murriztuz doa» Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak Europako iparraldeko herrialdeekin konparatuta arlo teknologikoan duen aldea.

Oraingoz, Basaurin jarri dute programa pilotua abian, eta probak maiatzaren 31 arte iraungo du. Gero, emaitzak aztertu eta beste herri batzuetara hedatu nahi dute sistema.